

BALIO PROPOSAMENA

Alde batetik, adineko pertsona asko bakarrik bizi dira haien etxeetan eta horietako askok laguntza behar dute beraien etxean bakarrik bizitzen jarraitzeko, adineko pertsona batzuk ez dute nagusien egoitzetara bizitzen joan nahi eta beraien autonomia mantendu nahi dute.

Bestalde, unibertsitatera ikastera beraien herritik kanpo doazen ikasle askok bizitzeko leku bat aurkitu behar dute. Leku hauek ikasleentzako egoitzak edo beste ikasleekin partekatuta alokatutako pisuak izaten dira. Aukera bi hauek garestiak izaten dira eta askotan, ikasleek zailtasunak izaten dituzte diru kopuru horiek ordaintzeko. Gainera hiri batzuetan ez da erreza izaten alokatzeko pisurik aurkitzea, askotan alokatzeko pisuen eskaintza txikia eta oso garestia delako.

INERen arabera Bilbon 45.000 adineko inguru bizi dira bakarrik etxean eta ikasleen %15-a beste hiri batera joaten dira ikastera. EUSTATen arabera, EAEn bakarrik bizi diren pertsonak 263.001 dira, biztanleriaren % 12, eta neurri handi batean, adinekoak dira. 65 urte eta gehiagokoak 112.531 pertsona dira. Biztanleria osoari dagokionez, adin-talde hori guztizkoaren % 22,2 da. 85 urte eta gehiagoko biztanleak kontuan hartzen baditugu, ikusten da 27.956 pertsona bizi direla egoera horretan, bakardadean bizi diren pertsona guztien %10,6a.

Nazio Batuak bere garapen jasagarrien helburuak kontutan hartuta, osasuna eta ongizateari dagokion 3. helburuan eta komunitate jasagarriei dagokien 11 helburuan kokatu dezakegu identifikatu dugun arazoa.

Arazo hau, gure ustez larria da, alde batetik, adineko pertsona hauei bakardadeak emozionalki eragiten dien kalteaz gain, modu autonomoan bizitzeko aldia murrizten duelako eta bestetik, ikastera datozen ikasle askorentzat ostatua lortzea zaila eta garestia suertatzen zaie, etxetik kanpo ikasteko aukerak murriztuz eta euren inguruan ikasi ditzazketen ikasketara mugatuz

Gure proiektuarekin arazo bi hauei aurre egin nahi diegu, adineko pertsona horiek eta ikastera datozen ikasleak, haien arazoak konpontzea bat eginez.

Egoitzetara joan nahi ez duten eta bakarrik bizi diren adinekoak eta pisua edo ikasleen egoitza ordaintzeko diru nahikorik ez duten ikasleak harremanetan jarriko. Adineko pertsona hauek Bilbora ikastera datozen ikasleei haien etxea utziko diete bizitzeko, ikasten dauden etapa bitartean eta horren truke, ikasleek konpainia emateaz gain adinekoak autonomo bizitzeko beharrezkoak dituen ekintzak egiten lagunduko liekete, horrela bi arazoei konponbidea emanez.

Alderdi biak harremanetan jartzeko bereziki gazteentzat zuzenduta egongo den app baten bidez eta Bilbon kokatuta egongo den bulego baten bidez egingo dugu. Bilbo eta Bilbo inguruko adinekoak bere pisuko logela bat ikasleari utzita eta ordainetan Bilbora eta Leioara ikastera datozen ikasleak adinekoari konpainia eta laguntza emonez:

Adinekoek eta ikasleek hurrengo zerbitzuak eskeinitako lituzkete:

Adinekoen zerbitzuak:

- Bizitzeko etxe bat Bilbon ikasten duten bitartean.
- Sukaldatzen erakutsi
- Etxea nola kudeatu erakutsi
- Garbiketa
- Elektrizitate eta mantendu lanak erakutsi

Ikasleen zerbitzuak:

- Erosketak egitera joan

- Etxea garbitu
- Teknologia berria nola erabiltzen den erakutsi
- Adinekoa kalera buelta bat ematera joan nahi badu, berarekin joan
- Medikura eta botikara lagundu
- Ekintza kulturaletara joan

Orain arte adinekoei dagokionez, bi konponbide nagusi izan dituzte, lehenengoa, nahiz eta egoitzetara joan nahi ez azkenean joan izan behar dira ez dutelako haietaz arduratuko den inor eta bigarrena, bere familiako pertsona batek laguntzen egon da berari behar dituen zerbitzuak eskainiz edo bestela adinekoen pertsonekin espezializatua den langile bat deitu dute adinekoetaz arduratzeko. Horretarako badaude enpresa espezilizatuak Cuideo adibidez.

Eta ikastera datozen ikasleei dagokionez, azkenean sare sozialetatik galdetu behar izan dute ea nor dabilen bilatzen partekatzeko etxe bat ikasten dauden bitartean haiek daukaten diruarekin ezingo zutelako leku bat aurkitu.